

## **16. GALDERARI BURUZKO ERREKLAMAZIOAK**

ANDONI ARRUABARRENA  
IVAN CONDE MARTIN

**16- HIRI IZAERAKO HERRI BIDEETAKO ERABILERAK, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZAREN ARABERA, SEINALEZTATUTAKO APARKALEKU BATEAN MATERIALAK HORNITZEKO EDO OBRA-HONDAKINAK JASOTZEKO, BEHARREZKOA IZANGO DA...**

- a) beharrezkoa izango da Udaltzaingoaren baimena.
- b) beharrezkoa izango da Hirigintza Bulegoaren baimena.
- c) beharrezkoa izango da Hazienda Bulegoaren aldeko txostena.
- d) beharrezkoa izango da Hirigintza Bulegoaren baimena eta Udaltzaingoaren aldeko txostena.

HIRI IZAERAKO HERRI BIDEETAKO ERABILERAK, TRAFIKOA, ZIRKULAZIOA ETA SEGURTASUNA ARAUTZEN DITUEN UDAL ORDENANTZA

4. ATALA Edukiontzia

65. artikulua

Materialak hornitzeko edo obra-hondakinak biltzeko materialak, aurrez Udalaren baimena eskuratu ondoren, aparkatzeko debekurik gabeko edo aparkatzeko denbora mugarik gabeko bideetan bakarrik jarri ahal izango dira. Edukiontzia ez dira behar bezala aparkatuta dauden ibilgailuek osatzen duten lerrotik kanpo jarriko. Behar bezala justifikatutako arrazoiak direla eta, hori ezinezkoa baldin bada, derrigorrezkoa izango da, Hirigintza Bulegoaren baimenaz gain, Udaltzaingoaren aldeko txostena.

**HORTAZ, ERREKLAMAZIOA ONARTU ETA ERANTZUN ZUZENA ALDATU EGIN DA. ORAIN, ERANTZUN ZUZENA D ERANTZUNA DA.**



## **22. GALDERARI BURUZKO ERREKLAMAZIOA**

FRANCISCO JAVIER ROJO LUEZAS

JAVIER FERNANDEZ GONZALEZ

JON PAJUELO ACEITON

IVAN CONDE MARTIN

**22.- NORBAITEK, IBILGAILU MOTORDUNA EDO MOTOR-BIZIKLETA GIDATZEN BADU, HIRI BIDETIK ARAUDIAK BAIMENTZEN DUEN ORDUKO HIRUROGEI KILOMETRO BAINO GEHIAGOKO ABIADURAN, HONAKO ZIGOR HAU IZANGO DU:**

- a) Sei hilabetetik bederatzi hilabetera arteko kartzela zigorra.
- b) Sei hilabetetik hamabi hilabetera arteko isuna
- c) komunitatearen aldeko lanak, hogeita hamar egunetik hirurogei egunera bitartean.
- d) Aurreko erantzun bat ere ez da zuzena.

379. artikulua. 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa, Zigor Kodeari Buruzkoa, ekainaren 22ko 5/2010 Lege Organikoaren 108. artikulua bakarrik emandako erredakzioaren arabera (Erref. BOE-A-2010-9953, 2010/06/23an argitaratua, 2010/12/23tik aurrera indarrean dagoena, erantzun zuzena b da).

1. Norbaitek, ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta gidatzen badu, hiri-bidetik araudiak baimentzen duen orduko hirurogei kilometro baino gehiagoko abiaduran edo hiriarteko bidean orduko laurogei kilometro baino gehiagokoan, orduan, horri hiru hilabetetik sei arteko espetxealdi-zigorra edo **sei hilabetetik hamabi arteko isuna**, edo, 31 egunetik 90 arte gizartearentzako lan egitea ezarriko zaio, eta, edozein kasutan, ibilgailu motordunak eta motor-bizikletak gidatzeko eskubideaz gabetua izango da, urtebetekoa baino denbora luzeagotik lau urte arteko aldira.

**ERANTZUN ZUZENA B) DA; HORTAZ, TXANTILOIA ZUZENDU EGIN BEHAR DA.**



### **35. GALDERARI BURUZKO ERREKLAMAZIOA**

FRANCISCO JAVIER ROJO LUEZAS

#### **35.- ETXEKO HONDAKINAK JASOTZEAZ ARDURATUKO DA**

- a) Deba Ibaiko Mankomunitatea.
- b) Debarrena Mankomunitatea
- c) Debagoiena eta Debarrena Mankomunitatea
- d) Eibarraldeko Mankomunitatea.

Ordenantzan, gaztelaniaz, “Bajo Deba” jartzen du hitzez hitz, eta euskaraz, “Deba Beheko”, Mankomunitatearen egiazko izena Debarrena bada ere. Hortaz, **Ordenantzaren literalasuna kontuan izanik, galdera ezeztatu, eta ordezeko erantzun bat erabiliko dugu.**